

**BATXILERGOKO TITULUA ESKURATZEKO****HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIAREN JARRAIBIDEAK**

*Batxilergoko ikastetxe publikoek ikasleen matrikulak onar ditzakete, nahiz eta Batxilergoko titulua eskuratzeko irakasgai batzuk gañditu gabe izan, baldin eta ez badaude Batxilergoko beste erregimenen batean matrikulatuta.*

- *Izena emateko epea ikasturte bakoitzeko apirilaren 30ean amaituko da.*
- ***Edukiak:** Irailaren 6ko, 127/2016 Dekretua, Batxilergoko curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko (EHAA, 2016-09-23)) arautzen ditu irakasgai komunak eta modalitateko irakasgaiak.*
- ***Matrikula egiteko lekua:** Posible bada, probintziako UBIn edo azterketa egin nahi den Batxilergoko modalitatea irakasten duen edozein ikastetxe publikoan egin daiteke.*
- ***Dokumentazioa:** Ikastetxeetako idazkaritzetan emango da informazioa.*
- ***Nahitaezko baldintzak:***
  - 1.- *20 urte betetzea proba egiten den urte horretako abenduaren 31 baino lehen.*
  - 2.- *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo baliokidea izatea.*
  - 3.- *Euskal Autonomi Erkidegoko udal batean erroldaturik egotea.*
- ***Irakasgaiak:** Matrikulak irakasgaika egingo dira, eta ez dago mugarik. Irakasgaiak ematen dituzten irakasleek informazioa emango dute ikastetxe horretan proba nola izango denaren inguruan.*
- ***Azterketak egiteko egunak:** Matrikula egin dueneko ikastetxeak ikasleari jakinaraziko dio zer egunetan egingo diren azterketak. Ikasleak adierazten badu graduiko ikasketak egiteko probetara aurkezteko asmoa dela, maiatzaren 30a izango da azterketak egiteko azken eguna.*

Vitoria-Gasteizen, 2017ko martxoaren 28an

Lucía Torrealday Berrueco  
Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaria